



‘Ate Irekia’ iritsi da: elkar biltzeko eta entzuteko espazio berria

Arabako Errioxako Elkarte Sozialistak formatu berri honekin gure proposamenak eta egunero egiten dugun lana ezagutarazi nahi ditu. Ekimen honen bitartez, gure jarduna herritar guztiei helarazi nahi diegu, informazio argia eta gertukoa emanaz. Gure eskualderako irtenbide errealak eraikitzen jarraitu eta aurrera egiteko espazioa da hau.

Gizarte zibila, garapen jasangarrian aitzindari

Amor sin Barreras, Sustraiak eta CEA taldeen ahotsa Kongresura eramán dugu, Garapen Iraunkorrerako Helburuez eta beren egitasmoez mintzatzeko. Daniel Senderos gure diputatuak azpimarratu duenez, “Arabako gizarte zibila aitzindaria da ekintza klimatikoan, jasangarritasunean, nekazaritza birsortzailean eta garapenerako kooperazioan”.



Eltziegon hildako lagunei omenaldia egin diegu

Errepresio frankistaren biktimei egindako omenaldia sustatu dugu, egia, justizia eta memoria demokratikoaren aldeko gure konpromisoa berretsiz. Modu berean, eskualdean geratzen diren aztarna frankistak salatu ditugu: Gorrebuston —kenduta, dagoeneko— eta Mañuetan, sinbologia frankista agertzen duen leihoburua baitago. Azken hau kentzeko dago.




Gobernu sozialistaren aurrerapausoak

Daniel Senderos diputatuarekin eta Paula Somalo senatariarekin bildu gara, Gobernu sozialistaren aurrerapausoak aztertzeko, eta etorkizuna izango duen Arabako Errioxa bidezkoagoa indartzeko. Gure ordezkariekin etengabeko kontaktua mantentzea irtenbide eraginkorrak lortzeko bermerik onena da. Horrez gain, kezka bideratzea, lurraldearen beharren berri ematea eta ekinbideak koordinatzea lortzen dugu, gure auzokideen bizitza hobetzen jarraitzeko.

‘Cantabria Mendilerroa’ ofiziala da jada

Arabako Errioxako Elkarte Sozialistak Cantabria Mendilerroaren aldeko Plataforma babestu du; haren bultzadaz, ‘Cantabria Mendilerroa’ izendapen ofiziala berreskuratu da, eskualdearen ondarea eta identitatea indartuz. Toponimia historikoaren aldeko aurrerapausoa da hau, bai eta lurralde gisa identifikatzen gaituzten izenei emandako babesa ere. Tokiko memoria eta kulturaren aldeko gure konpromisoa berretsi nahi dugu, identitate kolektiboan gako baitira horiek.



Gobernuaren Ordezkaritzarekin lan topaketa

EAEn Gobernuaren ordezkari Marisol Garmendiarekin eta Araban ordezkariorde Mar Dabanekin lan topaketa egin dugu, Arabako Errioxari lotutako lehentasunezko gaiak jorratzeko, eta Espainiako Gobernutik eskualdearen garapena eta ongizatea bultzatzen jarraitzeko. Azpiegiturak, ardoaren sektorearentzako laguntzak edo zerbitzu publikoen hobetzea izan dira landutako gaietako batzuk. Arabako Errioxarentzat etorkizuna eta aukera berriak lortu nahi ditugu.

Foru Aldunditik lan eginez

Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak

► Eltziegoko zeharbidea indartzea: trafikoa baretzea eta fauna babestea (>600.000 €, 2025eko 2. hiruhilekotik 2026ra).

► Alavabus eta eskualdeko garraioa GeoArabaren integratzea, ibilbideak eta geltokiak planifikatzeko eta konektibitatea hobetzeko.

► A-124 Samaniego–Leza: proiektua idazteko lizitazioa (240.548 €, 15 hilabete), Lezako bidegurutzeari irtenbidea emanez eta Lezako Ospitalerako sarbidea hobetuz.

Enplegua, Merkataritza eta Turismoa

► 2025erako eskaintza: 153 ikastaro eta 1.658 plaza (58 udalerritan; Laguardian, Eltziegoren eta Oionen, besteak beste).

► 27.000 €, udalerri hauetan turismoa sustatzeko. Laguardia: 12.500 €, Eltziego: 12.190 €, Bastida: 2.539 €.



Kultura eta Kirola

► XI. Magialdi Araba 2025: tailerrak eta emanaldiak euskaraz Villabuenan, Eltziegoren, Oionen eta Laguardian.

► Lantziegoko fazistolari eta silerari buruzko liburuaren berrargitalpena, gure ondarea ezagutarazten jarraitzeko.

► 'Arabako Ondare Industrial' lanaren aurkezpena (Marques de Riscal eta Lantziegoko olio dolarea barne), nortasuna, memoria eta bizitza kulturala indartuz.

Mugikortasun jasangarria ezinbestekoa da eskualdearentzat

Jon Nogales Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren diputatuarekin lan topaketa egin dugu, Arabako Errioxan egiten diren esku hartzeak eta proiektuak ezagutzeko, bai eta gure zerbitzu eta azpiegiturak hobetzeko proposamenak jasotzeko ere. Mugikortasuna bermatzen jarraitzea gure lehentasunetako bat da.





Espainiako Gobernutik etorkizuna eraikiz

► 115 M € Moredan, Oionen, Labrazan eta Gorrebuston ureztaketak modernizatzeko (MAPA/SEIASA) 400 hektareatan.

► 18,5 M € 2027ra arte Laguardiako urtegietarako, Bastida, Navaridas eta Eltziegori mesede eginez.

► 5,5 M € (Europako funtsak), 15 udalerrietan 26 proiektu dituen Jasangarritasun Turistikoko Plan baterako.

► 500.000 € landa eremuko emakumeen elkarteentzako laguntzetan.

► Pentsioen balioa handitzea KPIaren arabera, erosteko ahalmena bermatuz.

Sozialisten jarduna eskualdeko udaletan

LANTZIEGO

Azken osoko bilkuran talde sozialistak hainbat proposamen aurkeztu ditu, ingurunea era segurtasuna hobetzeko (hiri-zeharbidea, kableen lurperatzea), zerbitzuak hurbiltzeko (NAN eta pasaportarako VIDOC zerbitzua), turismoa bultzatzeko (foru laguntzez baliatuz), osasuna eta prebentzioa indartzeko (desfibriladoreak instalatuz eta bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko prestakuntzarekin), ekitaldiak hobetzeko eta hondakinen kudeaketa optimizatzeko.

OION

Aurrekontuak onartzeko Oionen egin dugun akordioari esker, aurrenekoz memoria historikoa aitortzea lortu dugu, bai eta LGTBI kolektiboari laguntza ematea ere, berdintasunean aurrera eginez eta gure historia zainduz. Aurki, txakurrentzako gunea izango dugu, eta Zaun elkartearekin batera, katu kolonien gaineko kontrola indartu dugu, higieua hobetuz. Energia aldetik orain efizienteagoa da Oion, neurri jasangarriekin, eta auto elektrikoetarako karga gunek batekin. Gainera, tokiko merkatarien alde jarduten jarraituko dugu, zuzeneko eta zeharkako laguntzen bitartez.

LEZA

Lezako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatuko du etxebizitza turistikoak arautzeko. Neurri honen bitartez, horien ugaritzea geldiarazi nahi da, eta bermatu nahi da ere landetxeek bidezko lehia egiteko aukera izan dezatela, landetxeek kontrol eta betekizun gehiago dituztelako. Modu berean, landa eremuan urte osoan bizi eta lan egin behar duten lagunei etxebizitzarako sarbidea erraztu nahi zaie.

